

Eskualdeko Hiri Garraioko gizarte tarifak arautzen dituen ordenantzako Zioen Adierazpena atala eta 3., 4. eta 6. artikulua aldaketa proposamena

ARRAZOIAK AZALTZEA

11/2014 Foru Legearen, ekainaren 18koaren, xedapen gehigarriarekin bat (8/1998 Foru Legea, ekainaren 1ekoa, Iruñerriko bidaiarien garraio erregularri buruzkoa, aldatzeko legea), ezartzen da Iruñerriko Mankomunitateak bonu sozialaren proposamen bat egin behar duela Iruñerriko Hiri Garraiorako, Gizarteratze Errentako taulei lotuta.

Ordenantza honen xedea da agindu hori betetzea, gizarte tarifa berri bat araututa: F tarifa. Tarifa horren barnean sartzen dira oinarritzko premiei erantzuteko baliabide ekonomikorik ez duten familiak, eta, horrenbestez, gizartetik kanpo gelditzeko arriskua duten pertsonen osatutakoak. Halakotzat jotzen dira, hain zuzen, Gizarteratzeko Errenta jasotzeko baldintzat jotako zenbatekoak baino baliabide ekonomiko txikiagoak dituztenak, eta multzo horretan sartzen dira familia unitateko edo unitate hartzaileko kide guztiak.

Gizarte tarifa berri hau sortu denez, diru-sarrera eta ondasun mugatuak edukitzearen mende zeuden bi gizarte tarifak (A eta D tarifak) kendu egin dira. Zehazki, xedapen iragankorrean ezarri da bi tarifa horien balio epea.

Modu gehigarrian, tarifen marko berri bat sortzeak –garraio publikoa erabiltzea sustatuko duena, aldi baterako tituluak edo abonua ezarrita- aurreikusten du berariaz gazteentzat izango den abonua edukitzea. Horretarako, ezinbestekoa da 26 urtetik beherako gazteentzako gizarte tarifa bat sortzea (J tarifa). Beste alde batetik, E gizarte tarifa, ahalmen urrikoentzako tarifa, lehen zegoen adin murrizketa kenduko da.

3. artikulua. Gizarte tarifen modalitateak.

Gizarte tarifen lau bost modalitate ezberdin ezartzen dira, honako kolektibo hauei bideratuta.

-B tarifa, 65 urtetik gorako pertsonentzat.

-C tarifa, familia ugarien kide diren pertsonentzat.

-E tarifa, %65eko edo gehiagoko ahalmen urritasuna, edo erabateko ezintasuna edo ezintasun handia duten pertsonentzat, ~~5 eta 65 urte bitartekoak badira.~~

-F tarifa, gizartetik baztertuak izateko egoeran dauden pertsonentzat.

~~-J tarifa, 26 urtetik beherako gazteentzat.~~

Gizarte tarifa horiek ezin izanen zaizkio bata besteari gehitu.

4. artikulua. Gizarte tarifen onuradunak.

Aurreko artikuluan zehaztutako gizarte tarifen onuraduna izateko, ondoren aipatzen diren lau bost profil-motetako baten baldintzak bete beharko dira. Hemen zehazten dira, aplikatzen zaizkien gizarte tarifekin egin den bezala:

1. B profila.-65 urte edo gehiago izatea.

2. C profila. Familia ugariei buruzko 20/2003 Foru Legearen 3. artikuluan exijitzen diren baldintzak betetzen dituen familia ugari baten kidea izatea, edo Estatuko edozein autonomia erkidegotan indarrean dagoen araudi analogoa betetzen duen familia baten kidea izatea, eta aipatu lege horiek ezarritako titulu ofiziala izatea.

3. E profila. ~~5 eta 65 urte bitartekoa izatea, eta~~ Erabateko ezintasuna, ezintasun handia edo %65eko edo gehiagoko ahalmen urritasuna izatea.

4. F profila. Gizarteratzeko Errentaren jasotzaile izateko eskubidea ematen duten zenbatekoak baino baliabide ekonomiko txikiagoak dituen familia unitate bateko kide izatea. Zenbateko horiek une bakoitzean indarrean dagoen legeriak ezarritakoak izango dira.

5. J profila: 26 urte baino gutxiago edukitzea.

6. artikulua. Gizarte profileko garraio txartela lortzea

Gizarte profileko garraio txartela lortzea Iruñerriko Mankomunitateak kudeatuko du, modu zuzenean edo zeharkakoan, kargatzeko sarea osatzen duten establezimenduen bitartez.

Gizarte profileko txartela jaulkitzeko beharrezkoa da eskatzaileak honako dokumentazio hau aurkeztea:

- Eskatzeko inprimakia, behar bezala beteta eta sinatuta.
- Koloretako argazkia, txartel tamainakoa. (Horretarako behar den ekipamendua duten establezimenduetan, eta taldeko arduradunaren iritzia araberak, argazki horren ordez unean bertan webcam baten bidez hartutako beste bat erabili ahal izanen da).
- Jatorrizko nortasun agiria eta horren fotokopia (NAN, bizilagun-txartela, pasaporte edo gida-baimena).
- Dagokion profila ziurtatzen duen dokumentazioa (jatorrizkoa eta fotokopia):

a) B profila. Ez da beharrezkoa dokumentazio gehigarria.

b) C profila. Familia ugarikoa izatearen txartela.

c) E profila. Alegatutako urritasunaren ziurtagiria.

d) F profila: Pertsonen Autonomiarako Nafarroako Agentziak emandako prestazioa frogatzen duen dokumentua edo gizarte zerbitzuek jaulkitako dokumentua, frogatzen duena Gizarteratzeko Errenta jasotzeko baldintza moduan ezarritako zenbatekoak gainditzen ez dituzten diru sarrerak eta ondasunak dituela. Gizarteratzeko Errenta jasotzen duen unitate bereko kideek frogatu beharko dute prestazioaren onuradun den unitate jasotzaileko kideak direla. Gainerako kasuetan, familia unitate bereko kideek frogatu beharko dute unitate horretako kideak direla.

e) J profila. Ez da beharrezkoa dokumentazio gehigarria.

Dokumentazioa Mankomunitatearen Herritarren Arretarako Zerbitzuan emanen da, edo kargatzeko sarea osatzen duten establezimenduen bitartez, zein den eskatutako gizarte tarifa. Nolanahi ere, gizarte profileko garraio txartela jaulkitzeko behar diren dokumentuak Iruñerriko Mankomunitatearen esku badaude jada, eskatzailea salbuetsita geldituko da aurkezteaz.

Zenbait kasutan gizarte profileko garraio txartela postaren bidez kudeatzea onartuko da; horrela eginez gero, izapidetzean onuradunaren nortasuna eta ezaugarriak ziurtatzen dituzten dokumentuen fotokopia besterik ez da aurkeztuko, inprimakia eta argazkiak gainera. Gero, soilik beharrezkotzat joz gero, jatorrizko dokumentazioa bertan aurkeztu beharko da.

Establezimendu batean arduradunari txartela zuzenean ematean, gainera, aktibatu egingen da. Txartela aktibatzeke, gutxieneko karga bat egin beharko da nahitaez.